



**ONDIZ
KO JAI
20 AK
22**

aurresku TXAPELKETA



Informazioa:

KULTUR LEIOA
Tel.: 94 607 25 78
Fax.: 94 607 25 79
José Ramon Aketxe Plaza, 11
48940 LEIOA (Bizkaia)

infokultur@leioa.eus
www.kulturleioa.com

BIZKAIKO LX. AURRESKU TXAPELKETA

XIII. EMAKUMEZKOEN
AURRESKU TXAPELKETA

LX CAMPEONATO DE AURRESKU DE BIZKAIA

XIII CAMPEONATO DE
AURRESKU FEMENINO

Leioa Udaleko Kultura eta Gazteria Sailak, Txikiak Txiki eta Gure Ohiturak herriko dantza taldeekin batera, Bizkaiko Aurresku Txapelketaren 60. edizioan parte hartzera gonbidatzen zaituzte. Hona hemen lehiaketaren oinarriak:

1. Txapelketa Ondiz-en egingo da, irailaren 4an, igandea, arratsaldeko 7etan.
2. Lehiaketak bi modalitate izango ditu: Emakumezkoen Aurreeskua eta Gizonezkoen Aurreeskua
3. Aurreeskua dantzatz en duten neska-mutiek parte hartu ahal izango dute eta horretarako baldintza bakarra ohiturak agintzen duen bezala jantzita joatea izango da.
4. Aurreskulariek aurreskuaren lau zati dantzatu beharko dute, parte hartzaile guztiek dantzatu ondoren, eta puntu guztiak batu eta gero, epaimahaiaren erabakia jakinaraziko da.
5. Bi maila ezarri dira modalitate bakoitzerako: 16 urte baino gutxiagoko aurresku-dantzariak eta aurresku-dantzari nagusiak (16 urte baino gehiagokoak).
6. Izena posta bidez eman ahal izango da (honekin batera bidaltzen dugun izen fitxa bete ondoren edo bestela honako datu hauek agertzen diren agiria bidali beharko da: izena eta abizena, helbidea, telefono zenbakia eta zein dantza taldeko kidea den) baita posta elektronikoz ere. Lehiaketa egunean

bertan ere eman ahal izango da izena Ondizen, 17etatik 18etara.

7. Ekitaldian zein ordena jarraituko den erabakitzeke zozketa egingo da, arratsaldeko 18:30etik aurrera.
8. Euskal Herriko musika eta dantzeekin harremana duten lagunek osatuko dute epaimahai eta aurresku dantzari bakoitzari puntuak emateko honako hauek hartuko dituzte kontuan: bizkortasuna, konpasa edo erritmoa, nola punteatzen duten edo zein urrats jarraitzen duten eta aurkezpena edo jantziak. Parte hartzaileak lortu duen puntuazioa altuena eta baxuena alde batera utzi eta gainerako puntuen artean batz bestekoa egitetik aterako da. Leioako Udaleko Kultura teknikari bat izango da idazkari eta berak egingo du lehiaketaren akta.
9. Epaimahaiak estiloa, erritmoa eta Bizkaiko dantza-pausuak kontutan hartuko ditu.
10. Epaimahaiak erabakitakoari ezin izango zaio aurka egin eta oinarri hauen gaineko zalantzaren bat izanez gero edo lehiaketan ustekaberen bat gertatuz gero, gaizki ulertze edo ustekabe horien gainean epaimahaiak erabakia hartuko du. Epaimahaiaren irizpidea izango da une oro kontuan hartuko dena.
11. Bi kategorietarako ondoko sari hauek ezarri dira. Beren beregi adierazi da parte hartzaile bakar batek ere ezin izango dituela bi sari jaso:

EMAKUMEZKOEN MODALITATEA:

NAGUSIEN MAILA:

1. saria: 450 €, garaikurra eta zapia
2. saria: 300 € eta garaikurra.
3. saria: 150 € eta garaikurra.

GAZTEEN MAILA:

1. saria: 200 € eta garaikurra.
2. saria: 150 € eta garaikurra.
3. saria: 100 € eta garaikurra.

GIZONEZKOEN MODALITATEA

NAGUSIEN MAILA:

1. saria: 450 €, garaikurra eta txapela.
2. saria: 300 € eta garaikurra.
3. saria: 150 € eta garaikurra.

GAZTEEN MAILA:

1. saria: 200 € eta garaikurra.
2. saria: 150 € eta garaikurra.
3. saria: 100 € eta garaikurra.

Modalitate bakoitzean saririk jaso ez duen Leioako aurresku-dantzari hoberearentzat: "Leioako Udala" sari berezia.

Aurreskulari guztiek 50 € jasoko dute, dieta moduan.

12. Lehiaketan gerta daitezkeen ustekabeak direla eta, edo lehiaketaren beharizanak direla eta antolatzaileek lehiaketaren egitura aldatzeko eskubidea izango dute. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek oso orotik onartzea esan nahi du.

Izenemateko orria

Izen-abizenak

Helbidea

Herria

P.K.

Tel.

e-mail

Jaiotze data

Emakumezkoen modalitatea

Gazteen maila

Sinadura

Gizonezkoen modalitatea

Nagusien maila

